



Egia bizirik

EGLAKO AUZO ELKARTEA

Korreo elektronikoa:
egiabizirik@gmail.com

Elkartearen Twitter kontua:
<https://twitter.com/EgiaBizirik>

Instagram: @egiabizirik

35. ZENBAKIA

2025 ABENDUA

egiabizirik@gmail.com



Eguberri!

n!



PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN

EDITORIALA

Erakundeekin batera lan egiteko kontuan, ez gaude gustura Egia Bizirik auzo elkartekook. Ematen du parte hartzeko eskatzen digutela, baina behar den garaia datorrenean, ez digute entzuten, eta gure erabakimena huts gelditzen da. Eta, gainera, Udaleko Partaidetza Sailak duen erabakimena hutsaren hurrengoa da. Partaidetzaren alde daudela diote, baina usteak, ustel. Badirudi partaidetzaren aldeko udalaren asmoa zoragarria dela, baina huts egiten du. Ez da benetako borondate politikorik benetako partaidetzaren alde.

Egia Bizirik elkartean bestela pentsatzen dugu partaidetzaz. Uste dugu aurrera goazela auzoko jendea elkartu, hitz egin, adostu eta batera aurrera egiten saiatzen garenean. Egian auzotarren partaidetza-gertaldi anitz dugu. Gogoan ditugu. Elkarren arteko oroitzapenak dira.

Zer da berri azken aldian? Jendeak nahikoa parte hartzen du auzoan. Baina, bereziki, noizean behingo ekintzetan. Festak, eredu: San Juan sua, inauteri, Porrontxo, garagardo astea... Baina luzera begira... ezer gutxi gainera, garbi ikusi dugu.

Benetan behar dutena lortzeko, gero eta jende gehiagok hartzen duela parte. Eredu argia, anbulatorioko murrizketen kontrako agerraldiak. Hobetzeko asko dugu, baina: gure nagusien bakardadea, kanpotik datozenen harrera, irisgarritasun arazoak, etab.

Egiako auzoan beti ibili gara taldeak elkartzen: festa batzorde, kirol elkarte, kultura elkarte, euskararen aldeko elkarte etab.

Baina badakigu jendearen parte-hartzea atzera doala. Besteak beste:

- Elkarren arteko lanerako ilusio falta, ez sinistea gauzak hobetzeko aukera dagoela.
- Gero eta indibidualizazio handiagoa. Elkarren artekoak lanean ahalegintzea eskatzen du, eta ez dugu hori gustuko.
- Sare sozialen eragina.

Azken baten, ez gara jende bakar. Elkarrekin gabiltza, eta horrek goxatu eta aberastu egiten gaitu. Parte hartzea gure bizitza hobetzeko giltza da.

EDITORIAL

Si hablamos de participación con las instituciones, la valoración de Egia Bizirik es negativa. La sensación es que se nos anima a participar pero cuando llega la hora de la verdad no nos sentimos escuchados y nuestra capacidad de decisión es prácticamente nula, por no hablar del propio departamento de participación, el pariente pobre de la administración municipal, cuya capacidad de decisión es mínima. Parece ser el florero que hace bonito pero que no tiene trascendencia ni consecuencias. No existe una verdadera voluntad política que garantice la participación real.

En Egia Bizirik tenemos otra idea de la participación. Creemos que las cosas se consiguen cuando las personas del barrio se juntan, discuten, acuerdan y trabajan juntas. En Egia tenemos muchas historias de participación del vecindario. Están en la memoria de muchos de nosotros. Son nuestros recuerdos colectivos.

¿Qué sucede últimamente? En el barrio hay mucha participación. Pero sobre todo es mayor en actividades puntuales. Las fiestas son un ejemplo: la noche de San Juan, Carnavales, Porrontxos, la fiesta de la cerveza... Y no se da tanto en proyectos de larga duración.

Además hemos observado que cuánto más cerca de las necesidades básicas sea la propuesta de participación, mayor gente se implica. Un ejemplo claro serían las movilizaciones por los recortes en el ambulatorio. Pero todavía nos quedan muchas cosas que mejorar: la soledad de las personas mayores, la acogida de las personas migrantes, los problemas de accesibilidad, etc.

En el barrio de Egia se ha funcionado siempre coordinando todo tipo de grupos: comisiones de fiestas, clubs deportivos, grupos interesados por la cultura, por el euskera, etc.

Pero también hemos observado que la participación ciudadana está retrocediendo por múltiples causas:

- Desconfianza y falta de ilusión en la tarea comunitaria. Parece que no va a mejorar nada.
- Individualización creciente. Lo comunitario exige esfuerzo y no interesa.
- La influencia de las redes sociales.

A modo de conclusión, una imagen: no somos islotes sino archipiélagos cuya conexión nos alimenta, nos enriquece. La participación es la clave para la mejora de la calidad de vida de nuestra comunidad.

OSASUN PUBLIKO DUINAREN ALDE POR UNA SANIDAD PUBLICA DIGNA

2025. urte honetan Egia Bizirik taldea auzoko osasun publikoa hobetzeko borrokatu da. Anbulatorioko eta osasun mentaleko zentroko zerbitzuen egoera eskasak ikusita, martxan jarri ginen.

Handia izan da pediatren, ordezkapenen, kronikoen, psikologoek eta psikiatren eta abarren falta. Eta auzotarren kexen aurrean, mobilizazio kanpaina bat hasia erabaki genuen.

Hainbat asteazkenetan anbulatorio aurrean elkarretaratzea egin genuen eta auzoko taldeen babesarekin manifestazioa deitu genuen, parte hartze handia izan zuena. Eskerrik asko Egiako bizilagun guztiei.

Baina borrokan jarraitu behar dugu!

Osakidetza berriro esan du lanean ari dela arazo horiek konpontzeko, baina ez da egia. Espezialistentzako eta ebakuntzetarako itxarote zerrendak gero eta luzeagoak dira, eta langileen opor garaietan zerbitzua oso eskasa da; zer esan larrialdiei buruz, arreta gero eta okerragoa delarik; eta ematen diguten irtenbidea ospitalera joatea da, beraz larrialdietan arreta kolapsoa izugarria da.

Panorama horrekin, beldur gara 2026an berriro mobilizatu beharko ote garen. Auzoki-deok: adi egon eta mobilizazioak babestu! Horrela bakarrik lortuko dugu kasu egitea.

Este año 2025 Egia Bizirik ha peleado en favor de la mejora de la salud pública del barrio. Ante el deterioro de los servicios tanto del ambulatorio como del centro de salud mental, nos pusimos en marcha.

Grande ha sido la falta de pediatras, de sustituciones, de atención a los crónicos, de psicólogos y psiquiatras, etc. Y ante las quejas de la vecindad, decidimos iniciar una campaña de movilización.

Durante varios miércoles nos concentramos frente al ambulatorio, y con el apoyo de los grupos del barrio convocamos una manifestación que tuvo mucha participación. Gracias a toda la vecindad de Egia.

¡Pero tenemos que seguir peleando!

Osakidetza vuelve a decir que ya esta trabajando en solucionar estos problemas, pero no es verdad. Las listas de espera para los especialistas y para las intervenciones son cada vez mas largas, y en las épocas de las vacaciones de los trabajadores el servicio es muy deficiente; por no hablar de las urgencias, que cada vez están peor atendidas; y la solución que nos dan es ir al hospital, con lo cual el colapso de atención en urgencias es terrible.

Con este panorama, mucho nos tememos que en 2026 tengamos que movilizarnos de nuevo. Vecinas, vecinos: ¡estad alertas y apoyar las movilizaciones que hagamos! Solo así conseguiremos que nos hagan caso.



TREBESKA: ERRITMOZ ETA KOMUNITATEZ BETETAKO URTEA

Trebeska dantza taldeko kideok pasa den 2024-2025 ikasturteari emozioz begiratzen diogu, dantzaz eta komunitatez betetako urte bat izan baita: berriz elkartzeko, hazteko eta gure zoriona kaleetara inoiz baino indar handiagoz eramaten jarraitzeko urtea izan da.

2024-2025 ikasturtea Euskararen Eguneko erromeriarekin hasi genuen, nola ez, Plaza Haundin. Momentu ezin hobea izan zen ikastaroko ikasle berrienentzat lehen plaza hartzeko, beren ikaskideen eta auzo osoaren beroa eta babesa sentitu ahal izan baitzuten.

Negua iristearekin batera, Olentzero auzoan barrena ibili zen berriro, taldeko txikienekin, Aitor Ikastolako dantzariarekin, urteroko kalejirarekin kaleak alaitu baitzizkiguten.

Otsailean, duela bi urte hasi genuen truke bati esker, Muskildiko herrira bueltatzeko aukera izan genuen. Bertan, asteburua herriko etxean pasa eta bertako Maskaradetaz gozatu genuen. Aurten Pagolara joan ginen Altzai-Lakarriko gazteek osatutako maskarada ikustera.

Asteburu berean, Amikuzeko libertimendua ere ikusi genuen, Donapaleun.

Neguko kolore beltzetatik ihesi, Inauterietako ostegun gizenean (otsailaren 27an), Donostiako Alde Zaharreko kaleetan barrena ibili ginen dantzan, Goizaldi eta Eskola Dantza Taldeko dantzariarekin batera.

Udaberrian, ohi legez, ez dugu hutsik egin Hernaniko Dantzari Egunean. Aitor Ikastolako gure txikiek maiatzaren 10ean dantzatu zuten, eta heldu eta gazteen taldeak hurrengo egunean.

Ikastaroari amaiera bikaina eman genion, aurten ere, Plaza Haundiko ikasturte amaierako emanaldiarekin. Han elkartu ginen denak, txiki, gazte zein helduak, elkarrekin dantzatzeko eta urte osoko lana erakusteko. Eta denboraldiari agur esateko, Egiako kaleak jai giroz bete genituen Porrontxoetan, dantza eta poteoa energiari onenarekin uztartuz.

Urteko mugarrietako bat Aste Nagusiko emanaldia izan zen. Abuztuaren 13an dantzaz bete genuen berriro Alde Zaharreko Plaza Berria. 60 lagun bildu ginen dantzari eta musikarien artean, taldeko dantzari gazteak, dantzari ohiak eta Erketz Euskal Dantzari Taldearen luxuzko konpainiarekin.

IKASTURTE BERRIARI BEGIRA, URTE BEREZIA DATORKIGU

Datorren urtea ilusioz eta proiektuz beteta dator. Batetik, gure hitzordu finkoak mantenduko ditugu:

- Euskararen Eguneko erromeria Plaza Haundin.
- Olentzeroren kalejira Aitor ikastolarekin abenduaren 24an.

ASTIÑENE BASERRIA, LOIOLA ETA EGIA ARTEAN

Egia Bizirik-ek urteak daramatza baserria behingoz konpontzeko eskatzen. XVII. mendean eraikia, zutik dirauen “erriberako” baserri bakanetakoa da, eta Donostiako eraikin zaharrenetakoa. Udalaren kudeaketa negargarria izan da. Udalak urteak eman ditu jabeei erreklamatzeko eraikina zaharberritzeko, eraikin babestua baita. Alferrik izan da. Ez du ezer lortu. Orain, Udalak bi urte baino gehiago daramatza baserria desjabetuko duela esaten. Inoiz hitza betetzen badute, ez dakigu zer desjabetuko duten, horma batzuk bakarrik geratzen baitira.

Benetan interesa dagoenean, obrak azkan batean egiten dira. Adibide, Groseko Basque Culinary.



Egia Bizirik lleva años reclamando que se arregle de una vez el caserío. Construido el siglo XVII es uno de los pocos caseríos “de ribera” que sigue en pie y es uno de los edificios más antiguos de la ciudad. La gestión del Ayuntamiento ha sido y es nefasta. Años y años ha intentado el Ayuntamiento que los propietarios cumplan con su obligación de restaurar el edificio. Es obligatorio, porque es un edificio protegido. No lo ha conseguido. Ahora, llevan más de dos años diciendo que el Ayuntamiento va a expropiar el caserío. Si alguna vez cumplen su palabra, no sabemos qué van a expropiar, porque solo quedan unas paredes.

Cuando hay interés real, las obras se hacen a toda marcha. Por ejemplo el Basque Culinary de Gros.



- Ostegun Gizena (otsailak 12) Alde Zaharrean.
- Hernaniko Dantzari Eguna (txikiak apirilaren 25ean; helduak eta gazteak 19an).
- Donostiako Aste Nagusiko emanaldia.

Gure taldea etengabe hazten doa. Gaur egun 25 lagun inguru gaude helduen entseguetan! Gure haztegian, gazte taldean, 18 dantzari daude izena emanda, eta Aitor Ikastolako ia 150 dantzari atzetik datoz, auzoan dantzaren etorkizuna ziurtatzera.

Ikastaroekin ere jarraitzen dugu; astelehenero Blas de Otero plazako gure egoitzan, beteranoen taldea handitzen eta hasiberrien taldeak ere indarra hartzen doaz.

Kultura trukearako egitasmo eder bat dugu esku artean. Azaroan, Mallorkara joango gara Llubí herria bisitatzera. Han emanaldi txiki bat egingo dugu eta bertako dantzan eta kulturaren murgilduko gara. Asmoa da haiek maiatzean guri bisita itzultzea!

Baina, zalantzarik gabe, albisterik garrantzitsuena da 2026an Trebeskak 50 urte beteko dituela. Urte ahaztezina izatea nahi dugu, jardueraz betea. Eta bada egutegian denok markatu behar duzuen data bat: maiatzaren 23a, Trebeska eguna itzuliko da!

Herritar guztiei, dantzari, musikari eta mende erdian zehar familia honetan parte hartu duzuen guztioi ospakizun honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Kalejira, kantu poteoa, bazkari herrikoa, erromeriak eta askoz gehiago izango dira. Denon artean festa ederra egingo dugu!

Eskerrik asko auzoari, gurekin dantzan jarraitzeagatik!

AZOKA TXIKIA

Astelehenero arratsalde iluntzean Egiako Azoka Txikia egiten dugu Plaza Berrin. Bertan ekoizle txikiek beraien kalitatezko produktuak zuzenean saltzen dizkigute. Urtaro aldaketekin bat eginez 4 azoka berezi ere antolatzen ditugu. Aurten produktu berezietan gain auzoko sortzaileei plaza eskaini nahi diegu: negukoan musika-riak eta eskulanak egongo dira txistorraz lagunduta; udaberrikoan bisitari berezi batek azoka girotuko digu eta udakoan plaza kolorez betetzeko asmoa dugu. Azoka berezi hauetan produktuz betetako saski erraldoi bat zozketatzen dugu.

Eskaera kolektiboak ere antolatzen ditugu auzolanean. Udazkenean hasi eta udaberri- ra arte hileroko Valentziako produktuak ekartzen ditugu: laranja, ahukateak, limoiak, mandarinak... Honen harrera bikaina ikusita, beste eskaera mota batzuk ere antolatzea aztertzen ari gara.

Azoka Txikia Egian errotutako proiektua dela esan dezakegu. Izan ere, astelehe- neroko azokan ilarak gero eta luzeagoak izaten dira, batzuetan eguraldi txarra egin arren. Valentziako eskaeretan jen- de kopuruak ere gora egin duela sumatu dugu.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi, udaberrian udalak Azoka Txikiari trabak jarri zizkiola, azoka bera arriskuan egon zelarik. Honen aurrean auzotarrek azo- kari adierazitako babesa izugarria izan zen. Horrek indarrak ematen dizkigu proiektu honekin aurrera egiteko eta behar denaren aurrean defendatzeko.

Azoka txikia sigue alegrando Plaza Berri todos los lunes a las 18:30. Da gusto ver la variedad de ali- mentos de calidad que ofrecen peque- ños productores de la comarca. Hay que añadirles la posibilidad de hacer pedidos colectivos de productos de la huerta Valenciana: naranjas, aguaca- tes, limones, mandarinas... ¡Es de ver el ambiente que se crea los lunes en la azoka txikia!



BIZIPOZA

Maiatzaren 11n Egian Bizipoza jaia ospatu genuen. Bertan Egiako ANIZTASUNA ikusarazi eta lehen planoan jarri genuen. Hilabeteko lana izan zen, eta aurretik ere hainbat ekimen antolatu ziren eta 40 eragilek hartu genuen parte.

Goizean, Aitor ikastolan, Kaleko Afari Solidarioak antolatutako gosari koloretsuarekin hasi genuen eguna. Ondoren, Castellersen tailer irisgarria, Zapotxin, Porrotx eta Marimototsekin kantua eta dantza, kantujira auzotik barrena eta hainbat herrialdetako janari dastaketa izan genituen. Arratsaldean, arrazakeriaren aurkako autobusa, Goazeneko eta Uliazpiko lagunen emanaldia eta Katako igogailuaren auzo inaugurazio izan genituen, eta buruhandi zein erraldoiekin argazkia eginda egunari amaiera alaia eman genion.

El 11 de mayo celebramos en Egia la fiesta Bizipoza, en la que pusimos en valor y en primer plano la DIVERSIDAD del barrio. Fueron meses de trabajo, y previamente también se organizaron varias actividades; en total, participamos cerca de 40 asociaciones y grupos.

La jornada comenzó en la ikastola Aitor con un colorido desayuno organizado por Kaleko Afari Solidarioa. Durante la mañana disfrutamos, entre otras actividades, del taller inclusivo de Castellers, música y baile con Zapotxin, Porrotx y Marimotots, una kantujira por el barrio y una degustación de gastronomías de distintos países. Por la tarde, el autobús contra el racismo, las actuaciones de los grupos de Goazen y Uliazpi, la inauguración popular del ascensor de Kata y una foto final con gigantes y cabezudos pusieron el broche festivo a un día inolvidable



EGIHAURGUNEA

Hamaika urte pasa dira Egihaurguneak 2014. urtean 0-6 urte bitarteko haurren eta hauen familien beharrei erantzuteko egitasmoa sortu zela. Haurrentzat berdintasunez eta askatasunez aritzeko jarduerak antolatzen ditugu eta beraien heziketan lagungarri suertatuko den espazioa dugu Egiako Haur Txokoan asteartetik igandera goizeko ordutegian. Gainera, auzoko dinamika eta gurasoen hamerramanak bultzatzeko elkar-trukerako gune euskalduna eskaintzen dugu.

2025. urtea hasi dugu Egiako txikienak Haur Txokoan biltzen; otsailean Lalala Soinu Gelaren eskutik 0-3 urte bitarteko haurrentzako musika tailerraz gozatu dugu. Maia-tzean Bizipoza ekimenarekin bat egin eta guraso bolondresak muntaia eta jasoketan laguntzen ibili ginen. Ekainean Adunan egon ginen Zirkuolan familientzako zirko saio batean, zirkuko disziplinak probatzen. Uda amaitzeko Porrontxo Jaietan Plisti Plastaren eskutik ekojolas saioa egin genuen, eta beste arratsalde batean gurasoek antolatuta-ko eskulan tailerrak. Azaroan elkartekideei eta bazkide berriei zuzendutako Topaketak egin genituen, elkartearen indarrak neurtu eta 2026rako haur zein familientzako plan-gintza erakargarri bat prestatzeko. Mila esker aukeragaitik.

11 años ya que Egihaurgune funciona en el barrio. Empezamos el año ofreciendo el Haur Txoko en horario de mañana; en febrero gozamos del taller de música Lalala Soinu Gela para las criaturas de 0-3 años; en mayo nos sumamos a la fiesta de Bizipoza; en junio nos acercamos a Aduna a probar disciplinas circenses con Zirkuolan; fin de verano con Porrontxos, donde organizamos ecojuegos con Plisti Plasta; en noviembre hemos tenido los Encuentros dirigidos a la gente asociada y a la recién asociada, para dar un repaso a la asociación y preparar un plan atractivo para las criaturas y sus familias.

INFORMAZIO GEHIAGO

<https://egihaurgunea.blogspot.com/egihaurgune@gmail.com>



EGIAKO KANTU JIRA

Zorionez, kantatzeko gogoia ez da gure artean sortu beharrik, berezkoa omen dugu eta. Zorionez ere, sentsibiltate eta eduki askotako sorta ederra dugu egun edota egoeraren arabera kantak aukeratzeko. Horretarako, PDF formatuan aspaldi osatzen hasi ginen liburutxoaz baliatzen gara.

Hainbat musikariz lagunduta, hilero lehen larunbatean, eguerdin gurekin kantatzeko gonbitea luzatzen dizuegu lerro hauetatik.



EGIA ZEINUKA

Duela sei urte jarri genuen martxan Egia Zeinuka, auzoko jendea pertsona gorren errealitatera hurbiltzeko eta zeinu hizkuntza gure hizkuntzen parte bihurtzeko helburuarekin. Urte hauetan zeinu-hizkuntzako ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, ipuin kontaketa eta zeinu-poteak antolatu ditugu, eta egitasmoak auzoaren babesa eta parte-hartze zabal eta ederra jaso du.

Aurten, aniztasunaren aldeko Bizipoza jaian ere parte hartu dugu, eta bertan beste eragileekin harremanak sendotzen hasi gara: Egialai, Antxeta, Egia Eskubaloia... Berreziki, Zapotxin pailazoarekin izan genuen saioak bide berri bat ireki du: hemendik aurrera harekin eta gorren elkarteeekin batera bideoak sortuko ditugu pertsona gorren egoera ikusarazteko eta haiekin nola komunikatu erakusteko.

Egiako Kultur Etxeak ipuin kontaketa-aren eta datozen ikasturteko zeinu-hizkuntza ikas-taroaren ardura hartu du, eta auzoak urrats sendoak eman ditu inklusioaren alde. Egia Zeinukan lanean jarraituko dugu, gorren errealitatea auzoko espazio gehiagotan txertatzen.



Hace seis años pusimos en marcha Egia Zeinuka, con el objetivo de acercar a las vecinas y vecinos a la realidad de las personas sordas y de integrar la lengua de signos como parte de nuestras lenguas del barrio. En este tiempo hemos organizado cursos de lengua de signos, talleres, charlas, cuentacuentos y zeinu-poteak, y el proyecto ha recibido un apoyo amplio y muy valioso por parte del barrio.

Este año también hemos participado en la fiesta Bizipoza a favor de la diversidad, donde hemos comenzado a estrechar la colaboración con otros colectivos: Egialaia, Antxeta, Egia Eskubaloia... En especial, la sesión realizada junto al payaso Zapotxin ha abierto un camino nuevo: a partir de ahora, junto a él y a las asociaciones de personas sordas, elaboraremos vídeos para visibilizar su realidad y enseñar cómo comunicarse con ellas.

La Casa de Cultura de Egia ha asumido la organización de los cuentacuentos y del curso de lengua de signos del próximo curso, y el barrio está dando pasos firmes hacia la inclusión. En Egia Zeinuka seguiremos trabajando para que la realidad de las personas sordas esté presente en más espacios del barrio.

ETXEBIZITZAREN ARAZOA

PROBLEMATICA DE LA VIVIENDA

Agintariak etxebizitzari buruz aritzen direnean, badirudi konpondutako arazo batez ari direla, guztiok dakigunean ez dela horrela. Egian, eta Donostian oro har, etxebizitza eskuragarrien faltan gaude, eta jende asko oso egoera latzean bizitzen ari da, neurritz kanpoko prezioetan. Administrazioari proiektu erraldoiak bururatzen zaizkio (Auditx-Akular, Añorga Txiki, Infernua edota, gurean, Aldakonea), auzoetako egitura errespetatzen ez dutenak, ingurugiroa eta natura kontuan hartzen ez dituztenak, eta zerbitzu publikoen eskaintza urria dutenak. Eta era berean, ahaztu egiten dituzte hutsik edo turismoari jarrita dauden etxebizitza guztiak.

Aurrekoari gehitu behar zaizkio ugaritzen ari diren etxegabetzeak, duela gutxi Aldapa kalean ikusi duguna kasu. Etxe batetik hamaika lagun kaleratu zituzten, tartean haurdun zegoen emakumea eta beste familia bat 11 urteko haurraren. Zortzi logeletako etxebizitza handi batean bizi ziren guztiak, gela bakoitzagatik hilean 600 € ordainduz, baina espekulazio kasu gordin honetan, kontratuak egonda ere, bitartekariak ez zion jabeari ordaintzen.

Egia Bizirik auzo elkarteak horrelako auzien salaketa egiten jarraituko du, alokatzeko etxebizitza publikoa aldarrikatuz, Egian bizitzea ez dadin gauza **eskisitoa** izan egiatarrontzat.



Las autoridades hablan de la vivienda como si fuese un problema que ya está arreglado, cuando evidentemente no es así. En Egía, y en Donostia en general, estamos a falta de vivienda asequible, y mucha gente está viviendo en condiciones de absoluta precariedad, y a unos precios desorbitados. A la administración solo se le ocurren proyectos grandiosos (en Auditz-Akular, Añorga Txiki, Infierno o, en nuestro barrio, Aldakonea) que no respetan la idiosincrasia de los barrios ni el medio ambiente y la naturaleza, y con una oferta de servicios públicos insuficiente. Sin embargo, se les olvida la gran cantidad de pisos vacíos o dedicados al turismo.

Además de todo lo anterior, son frecuentes los casos de desahucio, como el que ocurrió recientemente en la calle Aldapa, en el que fueron desalojadas de sus habitaciones once personas, entre ellas una mujer embarazada y otra familia con un niño de 11 años. Estas personas vivían en una vivienda grande de 8 habitaciones, y pagaban un contrato de 600 € mensuales por cada habitación, en un caso de especulación con un intermediario que finalmente no pagaba al propietario.

Egja Bizirik continuará haciendo un seguimiento de este problema y reivindicando la vivienda pública de alquiler, para que vivir en Egja no sea una **exquisitez** para los y las egiatarras.

GLADYS GOGGAN

Urtero bezala, auzoak Gladys del Estal gogoratu zuen. Tuteran guardia zibil batek hil zuen 1979ko ekainaren 3an. Aurten ekitaldiak eduki antibelista izan zuen. Gladys protestan ari zen, Bardeako tiro poligonoaren eta NATOren aurka, tiro egin ziotenean.



Como todos los años, el barrio recorrió a Gladys del Estal, asesinada por un guardia civil en Tudela, el 3 de junio de 1979. Este año el acto tuvo un contenido antibelicista. Gladys estaba protestando contra el polígono de tiro de las Bardenas y contra la OTAN cuando le pegaron el tiro.

EGIALAI


O hartzerako joan zaigu beste ikasturte bat. 2026an hirugarren urteurrena ospatuko dugu. Bagoaz aurrera pixkanaka eta pozik gaude. Ikastaroetan gero eta jende gehiago ari da parte hartzen eta kirol taldea bera ere egonkortu egin da. Orintxe, Aitor Ikastolarekin batera antolatuta, 28 ume aritzen dira frontoian; astear-tetan 35 emakumez osatutako hiru talde ditugu; ostegunetan gizonen ligaxkan aritzen dira beste 25, eta ostiraletan partiduak jokatzen dira. Gero eta talde gehiago izatea seinale ona da, baina arazoak ditugu guztiok ez baikara frontoian sartzen. Adibidez, taldeko kide batzuek beste frontoi batzuk alokatu behar izaten dituzte jokatu ahal izateko. Gainera, urtetik urtera frontoiaren alokairua gora doa: esaterako, aurren 17 euro-tik gora ordaindu behar dugu frontoia erabiltzen dugun ordu bakoitzeko. Urte osorako ordainketa dirutza da, milaka euro, gu bezalako kirol-talde xume batentzat, eta diru laguntzak motz geratzen dira. Gastu guztiak ordaintzeko, garagardo feria, txoznak eta urteurren festa egiten ditugu, zuei guztioi esker, noski, baina uste dugu Udalak esku hartu behar duela horrelako egoerak bideratzeko. Lortuko al dugu datorren urterako frontoiaren alokairuaren gaia konpontzea? Saiatuko gara!

Vamos haciendo camino, pelotazo a pelotazo. 2026 sera el tercer año de funcionamiento. Ahora mismo, 28 infantes de Aitor Ikastola se divierten en el frontón con Egialai; 35 mujeres completan tres grupos; en la liguilla de hombres andan 25, y los viernes se juegan partidos. Es buena señal que cada vez seamos más, pero el gasto de alquiler del frontón sube y sube, y el Ayuntamiento no acaba de enterarse. ¿Conseguiremos el año que viene solucionar el problema del alquiler del frontón? ¡Haremos lo indecible porque así sea!



GORAEGIA.EUS ATARIAK 5 URTE

Gora Egia! (goraegia.eus) auzoko plaza birtualak 5 urte bete ditu bere lehen argitalpena egin zuenetik. Atzera begiratuta, pozik egoteko moduan gaude; urteetako lanari eta erabiltzaileen inplikazioari esker (eta, noski, Egja Biziriketako teknikoak ordainduta) egunerokoan bere tokia egin du webguneak: solasaldiak, mobilizazioak, bigarren eskuko iragarkiak, Valentziko produktuen eskaintzak, Porrontxoaren atala eta beste gauza mordoak! Norberak esateko duena zuzenean argitaratu dezake goraegia.eus plataforman eta guk zabalduko dugu!



5 años ha cumplido goraegia.eus, la plaza virtual del barrio. En ella se anuncian cantidad de actividades del barrio: charlas, eventos, movilizaciones, anuncios segunda mano, ofertas de la huerta valenciana, Porrontxos y un sinfín de cosas mas. Tu escribes y goraegia difunde.

GORĀ EGIA!

TURISMOA EZ DA DENA URRE

Donostia bizigarri baten alde lanean dabiltzan taldeen artean dugu Bizilagunekin. Hiriaren turistifikazioak eragindako kalteak aztertzen eta salatzen lan handia egiten ari da, eta Egia Bizirik harreman estua du harekin. 2025ean antolatu dituen jardueren artean dugu ekaineko manifestazioa: hantxe, Egia Bizirik eta hainbat eragileekin batera salatu genituen hiriaren turistifikazioaren makurrak; urrian, Desazkunde Turistikoaren aldeko Euskal Herriko Topaketak antolatu zituen, eta Egia Bizirik ere bertan egon zen. Hiri bizi eta bizigarria nahi dugu, ez Donostia parketematiko bat.



Manifestacion convocada por Bizilagunekin en junio, para denunciar la turistificación de Donostia.

ONGI ETORRI ESKOLARA: “FAMILIA LAGUNA”

EGIAN JAIOTAKO PROGRAMAK 10 URTE
10 AÑOS DEL PROGRAMA NACIDO EN EGIA

Aitor Ikastolan sortutako Familia Laguna programaren hamargarren edizioa dugu 2025-2026 ikasturte hau. Egiako haur eta lehen hezkuntzako 3 ikastetxeek eta Donostiako beste 8 ikastetxek osatuko dute programa eta 112 familiak parte hartuko dute.

Programak harremanetan jartzen ditu beste herrialde batzuetatik etorri berri diren familiak adin bestruko seme-alabak dituzten tokiko familiekin. Familia Lagunak formakuntza, orientazioa, tresnak, topaketak eta jarduerak eskaintzen ditu familia etorri berriei harrera egokia egiteko, haien artean harremanak sortzeko eta iritsi berri diren familiak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko.

Lan horrekin batera, aurten auzoko eragileekin elkarlanean egindako zenbait ekintzen jarraitu dugu, hala nola Egia Bizirik, Guztiontzako Egia, Bizipoza Egia, Tabakalera, etab. Gainera, Irutxuloko Hitzarekin elkarlanean, hainbat auzokideri elkarrizketak egin zaizkie, auzoko kultur aniztasuna prentsan ikusarazteko. Porrontxo jaietan Holi jaia antolatu dugu. Bagerarekin batera programa bat ere egin dugu, ikastetxeetara iritsi berri diren haurrek euskara modu ludikoan ikas dezaten. Modu aktiboan parte hartu dugu Porrontxo jaietarako Kuadrila Mundialaren sorreran. Jatorri guztietako auzotarrak bildu ditugu, festa anitzagoak egiteko.

Ekitaldiz betetako urtea, Egiaz eta bere sentsibiltate sozial eta kulturartekotazunaz harro sentiarazten gaituena. Harro, 10 urte daramatzagulako auzoan elkarrekin lanean kulturarteko bizikidetzaren alde.

En el proyecto Ongi Etorri Eskolara, este curso 2025-26 estamos de celebración. La décima edición del programa Familia Laguna, nacido en Aitor Ikastola, arranca en los 3 centros de educación infantil y primaria de Egia y en 8 centros de Donostia, donde participarán un total de 112 familias.

Familia Laguna pone en contacto a familias recién llegadas de otros países con familias locales con hijos e hijas de la misma edad. Ofrece formación, orientación, herramientas, encuentros y actividades para que se realice una acogida adecuada a las nuevas familias, se creen modelos de relación intercultural entre ellas y se dé un acercamiento de las familias recién llegadas al euskera y la cultura vasca. Junto a esta labor, este año hemos continuado con algunas de las acciones llevadas a cabo en colaboración con los diferentes agentes del barrio como Egia Bizirik, Guztiontzako Egia, Bizipoza Egia, Tabakalera, etc.

Además, en colaboración con Irutxuloko Hitza se han hecho entrevistas a diferentes vecinos/as con el objetivo de visibilizar la diversidad cultural del barrio en la prensa. También hemos llevado a cabo un programa junto con Bagera para que los niños recién llegados a los centros escolares aprendan euskera de forma lúdica. Hemos colaborado activamente en la creación de la Kuadrila Mundiala, que ha reunido a personas del barrio de todas las procedencias para hacer unas fiestas más diversas.

Un año lleno de actividades, que nos hace sentirnos orgullosos de Egia y de su sensibilidad social e intercultural. Orgullosas de llevar 10 años trabajando juntos por la convivencia intercultural en Egia.

Gora Egia anitza!



PORRONTXOAK JAIAK

“ES EN EGIA, DÓNDE REINA LA ALEGRÍA!”
EGIA, BIZIPOZAREN HERRIA!

Gordegia auzoko memoria gordailuak, artxibo historikoak, jaurti du aurtengo txupina! Eta “Bilintx” bertsolaria omendu dugu Polloen bizilagun dugulako, eta noski, euskal sudur ospetsuena dugulako!

Esker oneko hitzak, baita ere, egunero, giro paregabea sortu duzuen auzotar eta bisitari, are gehiago, jai-egunak borobiltzeko, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, “Egia-herria” argazkiraino irauten duzenoi!

Izan ere, Egiako bizilagunen parte-hartzeari esker sortu eta bizirik mantendu ditugun jaiak dira Porrontxo Jaiak.

Belaunaldiz belaunaldi, koadrilek josi eta aurrera ateratako egitaraua da iraileko hirugarren astean “Es en Egia, donde reina la alegría” aldarrikatzen duen festa. Egia baita bizipozaren herria. Egian umore ona edonon!

Ez da alferrikakoa, horretarako, jai batzordeak egiten duen lana; 51 kuadrilla dira Porrontxoetan modu aktiboan parte hartzen duten kuadrillak. Guztira, 500 lagun inguru! Ez da makala, ez, auzo batek hartzen duen tamaina! Eta azken hamarkadetan aritutako auzotarrak aintzat hartuta, are gehiago! Memoria ariketa egin dugu hain zuzen ere, aurten, Gordegia eta Teila Fabrikaren laguntzaz antolatu dugun erakusketan. Erraz esaten da... Laster mende erdi! A zer nolako oroitzapenak!

Bide horretan, datorren urteko Porrontxoe begira jarrita, auzolanean segitzea izango da erronka. Auzo eder eta anitz honen isla izaten segiko duten jai parte-hartzaile eta herrikoiak bizirik mantentzen eta ahal bada hobetzeko lanean jarraitzea!

Egia auzoko nafarren omenez, Sanferminetarako bezala, Porrontxoetarako ere “gutxiago falta da!” Animatu eta parte hartu!!!



GORDEGIA AUZOA APAINTZEN

Gordegian, auzoa apaintzeari ekin diogu aurten, eta horretan jarraituko dugu datorren urtean ere. Hamaika txoko ditugu auzoan zaindu beharrekoak, xikinke-riak eta utzikeriak hartutakoak.

Karmengo Ama kalearekin hasi gara: kaleraren erdialdean esker-eskuin jarri ditugu tamaina handiko bi argazki hauek, eta horretan jarraitu asmo dugu.

Gure ohiko zereginak ere zintzo bete ditugu aurten: argazkiak jaso, dokumentatu eta web orrian jarri (gordegia.eus). Argazki erakusketa ere egin dugu, eta 2026an ere egingo dugu. Auzotarrei biziki eskatzen dizuegu etxean gorderik dituzuen argazkien artean auzoarentzat interesanteak izan daitezkeenak guri helaraztea, horrela osatuko baitugu auzoaren memoria grafiko dotorea.

Seguimos en Gordegia (gordegia.eus) incansables trabajando en la tarea de recoger todo el material que sirva para engordar el archivo de memoria del barrio. Fotos, videos, libros, mapas, documentos... todo aquello que se refiera al barrio nos interesa: sus gentes, sucesos, historias de ayer y de hoy.

Mira en los cajones de casa si hay alguna foto olvidada, algún librito, algún papel... que sean interesantes para la memoria del barrio, y háznoslas llegar. El barrio lo agradecerá.



ELKAR MUGITUZ EGINGO DUGU EUSKARALDIA



Joan den udaberrian, Euskaraldiaren laugarren edizioa izan genuen. Maiatzaren 15etik 25era, 11 eguneko ariketa sozialean parte hartu zuen Egiak, batzuk aho-bizi gisa euskarari eutsiz eta beste batzuk elkarrizketa elebidunak ahalbidetuz belarriprest gisa. Guztira 895 egitarrek parte hartu zuten, horietatik 687 ahobizi eta 208 belarriprest. Bestalde, auzoko 37 eragilek bat egin zuten Euskaraldiarekin euren komunitatean parte hartzea sustatuz.

Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimena Euskaraldiaren aurrekaria izan zen, eta orduko hartan 300dik gora lagunek parte hartu zuten. Oso garrantzitsua izan zen ariketa hura; jarduteko beste modu bati ekin genion orduan, norbanakoa aktibatuz euskararen erabilerari eutsiz. Eta Euskaraldia horixe bera da, baina norbanakoez gain, eragileen parte hartzea ere bilatzen duena.

Euskaraldiak iraun zuen bitartean egitarau oparoa antolatu zen: horma irudia margotu zuten Aitor Ikastolan, bertako ikasleek eta Maria Reina ikastetxekoek, Ilargi eta Musika Eskolako txarangek parte hartu zuten, Arranok pintxo potea antolatu zuen, Haur Txokoak eta Gaztelekukoek gaztetxoentzako jarduerak antolatu zituzten, Kneepap filmaren emanaldia Teila Fabrikan, Trebeska dantza taldearen plaza dantzen ikastaroa plazan... eragileek euren leloak pankartetan jarri argazki sorta ederra jaso genuen!

Euskaraldiak balio al du? Bai, horrelako ekimenak beharrezkoak dira. Euskararen aldeko urratsak ematen jarraitzeko. Agian, oraingoan eragin gehiago izan du euskara hain presente ez dugunengan. Ahobiziak behar ditugu eta belarriprestak behar ditugu, erabileran eragin nahi badugu.

Eta euskarak guztion beharra du, euskarak hitzunak behar ditu.

Egia Euskarazetik gogorarazi nahi dizuegu ate joka dugula hurrengo hitzordua: datorren udaberrian izango dugu, 24. KORRIKA, Atharratzetik Bilbora, martxoaren 19tik 29ra izango da. Egiako Korrika batzordean parte hartzera deitzen dizuegu, antolaketa lanak aurrera eramateko zenbat eta jende gehiago, ekitaldi ederragoa izango baita!



TEILA FABRIKA

Hiritarren eta proiektuen elkargunea eta babeslekua gara eta bide horretan, zerbitzuak biderkatzea izango da erronka baita datorren urtean ere.

Gure aretoek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz, bizilagunen bilerak eta enpresa edota elkarteentzako batzarrik ohiko dira Teila Fabrikan.

Honekin batera, Gau-beltzaren eta ziber-udalekuen antolaketa aritu gara gaztetxoe-kin, Gordegiako erakusketa-bildumak erakutsi ditugu pantaila handian, bizi-testamenua egiteko saioak hasi ditugu helduekin, pedagogia sistemikoen eta bestelako hainbat formazioaren erreferentziatzko gune bilakatu gara, garapen jasangarria eta kontsumo arduratsua sustatzeko ekimenak...

Aurten, gainera, Itsulapikoa crowdfunding plataforma berritua aurkeztu dugu jendarean. Tresna eraginkorra kultur zein egitasmo komunitarioei hauspoa eman eta auzo-lanari aukera berriak zabaltzeko.

Urte berriari sasoitsu ekingo diogu, elkarlana, ekonomia soziala eta kultura ardatz.

Un espacio de transformación social donde asociaciones, personas emprendedoras, cooperativas y pequeñas empresas comparten su día a día. Avanzamos en comunidad, junto a iniciativas y movimientos sociales. Tenemos como eje lo colectivo, la economía social y la cultura. Además de ser un lugar para trabajar y desarrollar tu proyecto, este es un espacio para conectar con diferentes agentes y organizar reuniones, presentaciones, cursos y otras actividades.

<https://tellafabrika.eus/es/>



KALEKO AFARI SOLIDARIOAK

Zenbaki gutxi batzuk laburtzen dute Amara Berriko, Alde Zaharreko eta Egiako KAS taldeek 2025ean egindako ekarpena, kalean bizi beste erremediorik ez duen jendeari:

240 afari egunero = 7.200 afari hilabetero = 86.400 afari banatuta aurten.

Gehi afari banaketa bakoitzean afaltiarrei eskainitako arreta, laguntza, gizatasuna...

5 urte jada egunero afariak banatzen. Bada marka gero! Beharra ere neurri berekoa.

Udala? Ezikusiarrena egiten; ez omen da bere arazoa.

Mikel Laboak inoiz kantatu zuen “Gabe-rako aterpea” gogorarazi beharko diegu agintariei.

Bitartean, gure esku dagoena egiten jarraituko dugu. Eta zuen laguntza estimatuko dugu.

kalekoafarisolidarioak@gmail.com



EGIAN EROSTEKO HAMAICA ARRAZOI



Erakusleiho, erakusmahai eta irribarre bakoitza esperientzia hurbil, zaindu eta dedikazioz beteaz gozatzeko gonbidapena da.

Xehetasun bakoitzaren atzean lanorduak, ilusioa eta beti onena eskaintzeko gogoia daude.

Egun hauetan Egiako kaleetan paseatzea auzoaren beroa sentitzea da: argizatzen duten erakusleihoak, harrera atsegina egiten dizuten saltokiak eta zure gustuak, behar-rak eta, askotan, baita zure historia ere ezagutzen dituzten profesionalak.

Egian kalitatea, tratu pertsonala eta erosketa bakoitzaren atzean zure egunerokoaren parte diren, auzoaren alde egiten duten eta onena eskaintzeko lan egiten duten pertsonak daudela jakiteko konfiantza aurkitzen dituzu.

Comprar en el comercio local significa apoyar a quienes dan vida a nuestras calles, fortalecen la economía del barrio y mantienen vivo el espíritu de barrio que nos hace únicos y únicas.

Es contribuir a un tejido comercial que genera empleo, que dinamiza el entorno y que hace que Egia siga siendo un barrio con identidad, diversidad y corazón.

Porque cuando compras en tu barrio, ganas tú, gana Egia y ganamos todas y todos.

Este año los y las comerciantes queremos agradecer tu fidelidad con una Tómbola de Regalos.

Elkartutako saltokietan egindako erosketa bakoitzarekin, txartelekin trukatu ahal izango dituzu txartelak, tonbolan parte hartzeko eta auzoko establezimenduek lagatako sariak eta beste ezustekoren bat edo beste lortzeko.

Una manera divertida de seguir apoyando al comercio local... ¡y poder llevarte un regalo estas Navidades!

Jai hauek, aukeratu hurbiltasuna, aukeratu konpromisoa, AUKERATU EGIA.



GUZTIONTZAKO EGIA AUZOTAR SAREA

Dagoeneko bi urte daramatxagu auzoan lanean, eta gure nahia da auzotarren artean elkar-bizitza osasuntsua garatzea. Adin, arraza, jaiolekuez hara-tago elkar zaintzea alegia!

Horretarako, auzoan bizi eta bizitza egiten dugunon artean harremanak sortu eta sakontzeko hainbat ekimen egiten ditugu. **Hilabetean**

behin Blas de Otero plazan biltzen gara, kale egoeran dauden pertsonak, jatorria beste herrialdeetan duten Egitararrak eta Egian jaio eta bizi garen auzotarrak, jolasteko, pelukeria tailerrak egiteko edo eta guztion artean mural bat margotzeko. Begietara so egin, entzun eta hitzak elkar trukatu, bata bestiaz ikasiz eta elkarrekin barre egin.

Salatu nahi dugu Donostiako udaltzainak saio guztietan agertzen direla, identifikatzen gaituztela eta mezu arrazistak esaten dizkigutela.

Urte hasieran **topaketak** egin genituen arrazakeriari nola aurre egin aztertzeko eta segurtasuna zer den eta nola landu hausnartzeko. Porrontxotan, **Kuadrila mundialean** elkar topo egin genuen, guztiok elkarrekin jaietan parte hartzeko. Bide honetatik lanean jarraitzeko gogoz eta ilusioz gaude. Argi daukagu: esperientziak erakusten digu hau dela bidea, Egia guztiona da eta guztiontzat!

Elkarrekin, nahastuak bizi gaitezen!



KATAKO IGOGAILUA

Auzoan ez dugu maldarik falta. Zahar jendea, gero eta ugariagoa ere. Udalak aitortu zuen, badira zortzi urte, igogailuak behar zirela Konkorranean, Aldakonean, Jai Alain, Aldapan eta Katako kalezuloan. Egia Bizirik urteak daramatza igogailu horien (eta besteren) beharra azpimarratzen, baina alferrik. Duela bi urte, 2.000 sinadura eraman genituen udaletxera, Katako kalezuloan igogailua jartzeko eskatuz. Beharrezkoa eta erraza iruditzen zaigu. Ezta hurrik eman ere. Horregatik, Bizipoza jaia aprobetxatuz, igogailuaren “inaugurazioa” antolatu genuen, Maria Reinako ikasleen laguntza estimagarriarekin: beraiek egin zuten igogailua irudikatzen zuen marrazki pankarta dotorea.



El Ayuntamiento, hace ocho años, decía que eran necesarios ascensores en Konkorrenea, Aldakonea, Jai Alain, Aldapa y el callejón de la Kata. Hace un par de años llevamos al Ayuntamiento más de 2.000 firmas de vecinos pidiendo el ascensor en el callejón de la Kata. Nos parece necesario y fácil de hacer. Ni caso. Aprovechando la fiesta de Bizipoza, organizamos una “inauguración” del ascensor. Los alumnos de María Reina nos ayudaron mucho. Suya era la pancarta que se colgó.

MARIA REINA ESKOLAKO IKASLEAK

2025eko otsailean Egia Bizirik elkarteak Egia auzoan beharrezkoa zen igogailu bat aldarrikatzeko kartel bat egitea eskatu zigun. Gelan gogotsu ekin genion lana, eta igogailua erabiltzeko behar handiena zuten pertsonak identifikatu ostean marrazte lanetan hasi ginen. Saio asko behar izan genituen lana garatu ahal izateko, baina azkenean lortu genuen. Bizipoza jaialdian eginiko aldakarrikapenean erabili zen guk eginiko kartela. Igogailuaren beharra ezinbestekoa da Karmengo Ama kalean, eskailerak igotzeko zailtasunak dituzten pertsonak baztertuak gera ez daitezen.



En febrero de este año, Egia Bizirik nos preguntó si queríamos participar en la campaña por el ascensor entre Virgen del Carmen y Ametzagaña. Después de mucho pensar en clase, se nos ocurrió que podíamos hacer un gran dibujo que representara a la gente que más necesita el ascensor. El día de la “inauguración” del ascensor, nuestro dibujo adornó las escaleras y el callejón de la Kata.

XABIER MENDI KIROL TALDEA

1. Otsailak 14-16 Iraupen eskia Pont d’Espagne eta Hautacamen

Aurten ere Xabier Mendi Taldeak asteburu pasa antolatu zuen iraupe-neko eskia egitera. Eguraldia lagun, bi egun zoragarri pasa genituen elurretan txiki, gazte eta heldu. Lehen egunean Pont d’Espagneko pistetan aritu ginen eta bigarrena Hautacamen, non hasiberriek nahiz adituek elur bikainaz gozatzeko aukera izan genuen. Lotarako lekua La Salamandre aterpea aukeratu genuen beste behin ere (Arrens-Marsous), aurreko urteetako esperientzia positiboa kontuan izanda.



2. Apirilak 4-6 Mendi eskiko zeharkaldia: Panticosa-Wallon-Panticosa

2025 urtean lehen aldiz, XMTak Mendiko eski zeharkaldi bat antolatu zuen, Panticosa-ko Casa de Piedra eta Walloneko aterpeen artean. Udaberriko elurraz gozatu ahal izan genuen, eta besteak beste, hauek bisitatu genituen: Bachimañako aterpea, Marcadau lepoa, Muga Nord gailurra (2675m.), Walloneko aterpea, Arratil lepoa, Ara bailara eta Brazato urtegia.

ZINEFORUMA

Egiako Zineforumak bere emanaldiak eskaintzen ditu Kulturetxean hilabete bakoitzeko bigarren edo hirugarren asteazkenez. Ikasturte honetarako programatu diren pelikulak honakoak dira:

Senderos de gloria (Stanley Kubrick), *Chavela* (Catherine Gund, Daresha Kyi), *Mali twist* (Robert Guédiguian), *Lone Star* (John Sayles), *Las nadadoras* (Sally El Hosaini), *Arnasa betean* (Bertha Gaztelumendi, Rosa Zufía), *El monje y el rifle* (Pawo Choyning Dorji), *Los limoneros* (Eran Riklis), *Crash* (Paul Haggis)

Gonbidatuta zaudete.

El Zineforum de Egia continúa con sus proyecciones y posterior tertulia, el segundo o tercer miércoles de mes en la Kulturetxea.



AITZARTE MENDI TALDEAREN 2026KO EGUTEGIA

- Urtarrila:** 11 Elantxobe-Elantxobe
25 Legorreta-Orendain-Gerbilu-Anduti-Ibiur
(umeekin egiteko aproposa)
- Otsaila:** 08 Urteaga Gain-Aloña-Arantzazu
22 Izpegi-Iparla-Bidarrai
- Martxoa:** 15 Ibilaldi Neurtua
22 Ametzagaina-Larre-Gain sagardotegia (bazkaria)
- Apirila:** 19 Opakua-Arnoko labirintoa
(umeekin egiteko arpoposa)
- Maiatza:** 02 Arantza
17 eta 18 Korres inguruan asteburu pasa
31 Guardetxea-Igaratza-Ganbo-Larraitz



WWW.LITERATURSOLASALDIK.EUS



Te invitamos a acudir a las reuniones de **EGIA BIZIRIK** en Blas de Otero plaza, I Si tienes ganas de echar una manita, te esperamos los primeros y terceros martes del mes a las 19:30 de la tarde



Egia bizirik
EGIAKO AUZO ELKARTEA